


Europa ilargian dagoen karbono dioxidoa barneko ozeanoan sortu zela ondorioztatu dute

Eguzki-sisteman bizi estralurtarra egotekotan, hautagaietako bat Jupiterren Europa ilargia da. Izan ere, orain arteko behaketek iradokitzen dutenez, azalaren azpian ozeano likido bat du. Horrez gain, bizia sortzeko ezinbestekoak diren beste elementu batzuk ere izan beharko lituzke; haietako bat karbonoa da. Eta azalean karbono dioxido izotzia du. Orain, JWST teleskopioaren datuetan oinarrituta, ondorioztatu dute karbono dioxido hori ozeanoan sortua dela.



Europa, 2022an, Juno zundaren bidez. ARG.: NASA/NASA/JPL-Caltech/SwRI/MSSS. Irudi-prozesatzailea: Kevin M. Gill.

Batetik, karbono dioxidoaren kartografia egin dute, eta ikusi dute bereziki ugaria dela Tara Regio eremuan. Eremu hori kaotikoa da, eta material gazteak dira nagusi. Horregatik uste dute karbono dioxidoaren jatorria azpiko ozeanoa dela, izan karbono dioxido modura, izan karbonato edo konposatu organiko modura, eta gero bilakatu dela karbono dioxido.


Bestetik, karbono dioxidozko izotzaren lau ezaugarri espektral aztertu dituzte. Eta hor ere ikusi dute Tara Region kontzentratuta dagoela. Karbono-isotopoak ere aztertu dituzte, eta baieztatu dute barnetik atera zela. Ez dakite, ordea, jatorria biotikoa den ala ez. ●

Hilekoaren faseak metabolismoan duen eragina aztertu dute

Frogatu dute intsulinarekiko sentikortasuna aldatu egiten dela garunean, hilekoaren fasearen arabera. Aipagarria da, lehendik jakina baita intsulinak eragina duela elikadura-joeran eta metabolismoan. Ondorioetako bat da, beraz, litekeena dela sexuen artean desberdintasunak egotea intsulinaren bidezko erregulazio metabolikoan; alabaina, horri buruzko ikerketa gizonezkoetan egin da nagusiki.

Ikerketa berri onen emaitzek erakutsi dute, batetik, garunak intsulinarekiko sentikortasun handiagoa duela fase folikularrean (obulatu aurretik) fase luteoan (obulatu ondoren) baino; eta, bestetik, fase luteoan garunak duen intsulinarekiko erresistentziak eragina izan dezakeela gorputz osoko erresistentzian.

Aldizkari berean, ikerketari buruzko beste artikulu zabalago eta orokorrago bat argitaratu dute beste egile batzuek, eta, haien arabera, ikerketa lagungarria da gorputzaren pisuan, gosean eta elikadura-joeran izaten diren aldaketak azaltzeko. Aldaketa horiek fase luteoaren amaieran gertatzen dira bereziki; hau da, intsulinarekiko sentikortasuna txikiagoa denean. Horrek, era berean, eragina izan dezake glukosaren kontrola okertzean, 1 motako diabetesa duten emakumeetan. ●



Giza folikulu obarikoa. ARG.: Jpogi/Jabego Publikoa.